

4.3. Premiak/ xedeak

4.3.1. Premiak zehazteko dauden eragileak

Ohikoak diren behar motak zehazteko, hurrengo kategoriak zerrendatu ditugu:

- Sentitutako edo hautemandako premiak. Baliabideen hartzaileek edo erabiltzaileek ahoz azaltzen dituztenak dira (eskaerak, itxaron zerrendak).
- Adierazitako premiak. Baliabide edo zerbitzuen hartzaile edo erabiltzaileek jarriren bidez, esate baterako baliabide edo zerbitzu jakin batzuk erabiliz, azaltzen dituztenak dira (zerbitzuen erabilerari buruzko datuak).
- Alderatutako premiak. Beste programa batzuekin alderatuta ezarritakoak dira. Programa horiek, antzeko ezaugarriak dituzten hartzaileei zuzendutakoak, ingurune alderagarrietan egindakoak dira, eta eraginkorrak izan dira.
- Premia normatiboak. Teknikariak eta politikariak definitutakoak dira. Arauei, behar izateari lotuta daude.

Proiektuen premiak, orokorrean, arauen ikuspegitik edo programa eraginkorrekin alderatuta zehazten ditugu. Oso ezohikoa da jarri nahi den programaren hartzaileek lehendik zeuden beste zerbitzu batzuk aztertzea, edo hartzaileei beren premiak azaltzeko aukera eta, alde horretatik behintzat, programaren diseinuan eta orientazioan parte hartzeko aukera eskaintzea.

Guk, geure aldetik, Programaren plangintza sisteman erabili beharreko teknikak aukeratzeko eta adierazle sistema diseinatzerakoan, premiak zehazteko goiko lau kategoriak erabili ditugu. Edonola ere, Programaren erabiltzaileen ikuspegia era mugatuan soilik kontuan hartu dugu (zerbitzuen erabilerari buruzko datuak –baliabideetan txertatzea garrantzi handiko arazoa da-, baliabideen gainean duten ikuspuntua, eta baliabideak erabiltzaileen premia, interes, gaitasun, eta abarrei noraino egokituta dauden).

Jarraian, sentitutako eta adierazitako premien adibide batzuk zerrendatuko ditugu, Programa diseinatzeko eta bideratzeko orduan ikuspegi hori hartzeak –erabiltzaileen eta hartzaileen ikuspegia- esan nahi duena hobeto ulertzen lagunduko digutenak. Premietako batzuk, erabiltzaile eta hartzaileek Programan duten itxaropenaren adierazgarri, adierazle sisteman sartu ditugu, baina ez denak. Aurrerantzean, zerrenda zabaltzen saiatu beharko litzateke.

Adingabe eta gazteek sentitutako premietako batzuk

- Gidatzeko baimena ateratzea
- Bidaiatzea
- Abenturazko kirolak egitea
- Erreferentzia taldean irudi ona edukitzea

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

Familiak sentitutako premietako batzuk

- Diru laguntzak
- Enplegua
- Atsedena, arnasbidea
- Aurrenerabe eta nerabeekiko harremanei buruzko orientabideak

Adierazitako premietako batzuk

- Arrisku egoeran dauden adingabeentzako kolonia eta udalekuetan parte hartzea
- Gizarteratzeko Gutxienezko Diru Sarrera (GGDS) eta Gizarte Larrialdietarako Laguntza (GLL) jasotzea
- Lanbide hastapeneko zentroetan parte hartzea
- Garapen instrumentaleko talde espezifikoetan sartutako adingabeak, laguntza gelak
- Osasun kontsultak
- Adingabeak instituzionalizatzea

4.3.2. Helburuen definizioa, helburuak hipotesien arabera adierazteko sisteman oinarrituta

Programaren helburuak adierazteko, konpondu nahi ditugun arazoetan eta arazoei lotutako alderdietan oinarritzen gara.

Arazoak zein arazoekin batera azaltzen diren alderdiak arauen ikuspegitik hartutako premien adierazpenak dira, gehienetan.

Programaren helburuen hierarkia ezartzerakoan, helburuak hipotesien arabera adierazteko sistema aukeratu dugu; plangintza sistema aurkeztean zehatzago azalduko duguna.

Sistema, oro har, konpondu nahi den arazoa –edo arazoak– identifikatzean (arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteak normalizatutako inguruneetan ez txertatzea), eta arazoaren “azalpena” ematen duten alderdiak identifikatzean edo hipotesiak egitean oinarritzen da.

Arazo horretatik –edo arazo horietatik– sortuko dira Programaren helburu orokorrak, eta hipotesi edo alderdietatik helburu espezifiko, bitarteko eta eragileetako batzuk.

Helburu batzuk soilik diogu, izan ere, arazoari –edo arazoei– lotutako helburu espezifiko, bitarteko eta eragileak ere adierazi behar baitira. Kontuan hartu behar da litekeena dela, arazoari lotutako zenbait alderditan hobekuntza lortu arren, arazoa ez konpontzea.

Litekeena da, esate baterako, hezitzaileen berezko eskaintzari dagokionean adingabe edo gazteak oinarritzko ohiturak eskuratzea bai, baina ez transmititzea eta, hortaz, inguruneetan txertatzeko arazoak irautea.

Helburu eraginkorrak adierazle sistemaren arabera adierazten dira, erabiltzaileek (adingabeak, inguruneak) adierazle jakin batean azaltzen den ezaugarri jakin bat eskuratzea espero den gradua ezarrita.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Adierazle sistemak eraginkor bihurtzen ditu arazoa (gizarteratzea, gure kasuan) zein arazoari lotutako alderdietako bakoitza (nork bere buruaz duen kontzeptua, oinarrizko ohiturak, ...) definitzen dituzten aldagaien barruan dauden dimentsioetako bakoitza.

Proiektu bakoitzaren arduradunek (banakako, taldekako, komunitateko proiektua) helburu eraginkorrak ezarriko dituzte, proposatutako adierazle sistemaren barruan eta erabiltzaileen abiapuntuko egoerak aintzat hartuta.

Hala eta guztiz ere, udal programa bakoitzak helburu orokorrak nahiz espezifikoak, eta bereziki eraginkorrak, murriztu edo zabaltzeko aukera izan dezake.

Jarraian, Programaren helburu nagusia eta helburu espezifikoak eta bitartekoak azalduko ditugu (arazoari eta hipotesiei lotuta).

Adierazle sistema plangintza sistemari buruzko atalean aurki daiteke.

4.3.3. Betetzea espero diren helburuak / lorpenak**4.3.3.1. Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programaren helburu nagusia**

Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programaren helburu nagusia arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteak hainbat ingurunetan eta normalizatutako eta egokitutako baliabideetan txertatzea da.

Helburu hori lortzeko, Programak bi helmuga nagusi ditu, Programak berak txertatzeaz duen kontzeptua azaltzen dutenak.

A.1. Hainbat ingurune normalizatu eta egokitutan, ezagupen, gaitasun, jarrera eta interes orokor eta zehatzak transferitzea, orokortzea eta garatzea.

A.2. Normalizatutako eta egokitutako inguruneetan parte hartzea

Arazoa adingabe eta gazteek normalizatutako ingurune eta baliabideetan ez parte hartzea da, baina ez hori soilik; aipatutako ingurune eta baliabideetan parte hartzen dutenean, gizartekotze baikorrerantz bultzatzen dituzten ezagupen, gaitasun, jarrera eta interesak garatzeko eginkizunik ez betetzea ere bada arazoa. Horrela bada, oso maiz baztertzen dute delako ingurune edo baliabidea, edo baztertuak izaten dira.

Helburua ez da soilik normalizatutako ingurune edo baliabideetan parte hartzea, baita ere, bertan era baikorrean garatzea. Hortaz, txertatzea, gure ikuspuntutik, ezagupen, gaitasun, jarrera eta interesak normalizatutako ingurune eta baliabideetan garatzea da, gizartekotze baikorra bultzatzen duten betebeharrak betez.

Bestalde, badira alderdi batzuk Programaren xede eta helburuen artean ez daudenak; adibidez, eskolako errendimendua (hezkuntza sistemari dagokiona), Adingabeen Epaitegian irekitako espedienteak gutxitzea, e. a., eta, oro har, adierazle sisteman eragina duten adierazle gisa sartutako alderdiak.

Beraz, Programa ez da funtsean ebaluatu behar adierazle horiek oinarri hartuta, horietan eragin ez zuzena eduki badezake ere.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

4.3.3.2. Arazoari lotutako helburu espezifiko eta bitarteko helburuak

HELBURU OROKORRAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK ("arazoari" edo "arazoei" lotutakoak / xedea)
A.1. Ezagupen, gaitasun, jarrera eta interes orokor eta zehatzak transferitzea, orokortzea eta garatzea, hainbat ingurune eta baliabide normalizatu eta egokitutan	(Hipotesiei lotutako helburu guztiak –ekintza eskaintzaren barruan-, inguruneetan erabilia eta urtebeteko jarraipena eginda). Eta, horrez gain,
A.2. Normalizatutako eta egokitutako ingurune eta baliabideetan parte hartzea	Adingabe edo gaztearen garapen eta portaera egokiak hautematea (ingurunea)
A.2.1. Familia dinamika baikorrean parte hartzea	Familiari eskainitako denbora luzatzea, eta harekin burututako ekintzak dibertsifikatzea Zaintzaile nagusiek jarritako ordutegiak errespetatzea Etxeko lanetan parte hartzea
A.2.2. Herritar guztiei zuzendutako hezkuntzako baliabide formaletan, arautu eta ez arautuetan, alde batetik, eta arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen ezaugarriei egokitutako baliabide espezifikoetan, bestetik, parte hartzea	Ikastetxera joatea Ikastetxeko jardueretara puntual iristea Etxerako lanak egitea
A.2.3. Lan aurreko eskarmentua eskuratzea	Prestakuntzarekin jarraitzea edo lan aurreko eskarmentuaren bitartez enplegua eskuratzea Motibazioa garatzea eta lana bilatzen trebetasuna lortzea Lan aurreko jarduerarekin zerikusia duten gaitasun espezifikoak eta orokorrak eskuratzea (puntuala, ordenatua,..., izateko ohitura, eta komunikatzeko eta harremanetan sartzeko gaitasuna)
A.2.4. Harremanetako sare informal, baikor, eta zabaletan parte hartzea.	Harremanetako sare iraunkorra, zabala eta egokia garatzea (adin bereko lagunak) Astialdiko ekintza baikorrak egitea lagunekin
A.2.5. Herritar guztiei zuzendutako eta arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen ezaugarriei egokitutako hezkuntzako baliabide ez formal eta soziokulturetan parte hartzea	Astialdiko ekintza antolatuetan parte hartzea Autogestio proiektuetan inplikatzeko (antolatzea, inplikatzeko, gestionatzea, urtebete igaro ondoren taldean irautea)
A.2.6. Adingabe/gazte ingurunean harremanak hobetzea (inguru guztietarako)	Adingabe edo gaztearen proposamen baikorrak onartzea eta ezkorrei uko egitea (ingurunea) Adingabe/gazte ingurunean komunikazioa hobetzea Eredu baikorreko irudiekin loturak garatzea (adingabea/gaztea)
A.2.7. Adingabe/gazte ingurunearen pertzepzioa hobetzea (inguru guztietarako)	Adingabe edo gaztearen harreman sarea zabaltzea (ingurunearen barruan) Adingabearen pertzepzioa hobetzea eta betebeharrak ematea (ingurunea) Portaeraren pertzepzio erreala izatea ingurunean (adingabea/gaztea) Ingurunearen pertzepzioa hobetzea (adingabea/gaztea)

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

4.3.3.3.. Hipotesiei lotutako helburu espezifiko eta bitarteko helburuak

Helburu espezifikoak zehazten ditugu arazoa aztertzean kontuan hartutako alderdi/hipotesien arabera. Bitarteko helburuek hipotesian dauden aldagaiaren dimentsioak garatzen dituzte.

Azterketa bera, erakundeek eskaturik egin da; Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programaren barruan dago, eta, beraz, ez dira barnean sartzen arazoari lotutako alderdi guztiak (adibidez, makroekonomiako politikak langabezia tasan duten eragina; gazteek lan merkatuan egiten duten presioa murrizteko derrigorrezko eskolatzea zabaltzea; udalerri edo eskualdeko egoera ekonomikoa, e. a.).

Programaren oinarrian dauden gizarte ekintzaren eta heziketa konpentsatorioaren eredua kontuan hartuta, hainbat helburu bereizten ditugu, adingabe eta gazteei, inguruneei, eta adingabe eta familiek inguruneekin dituzten harremanei zuzenduak.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	BITARTEKO HELBURUAK
B.1. Gizarteratzeko ezagupenak eta gaitasuna eskuratzea, eta oinarritzko jarrera eta interesak garatzea, kaleko hezitzaileen eskaintzaren ingurunean	B.1.1. Era autonomoan, nahikoa informazio garrantzitsua eskuratzea B.1.2. Autoestimua, oinarritzko ohiturak, harremanetarako trebetasuna eta bestelako ezagupen, gaitasun eta jarrera transferigarriak garatzea B.1.3. Ezagupenak, gaitasunak eta jarrera espezifikoak lortzea, eskola barruko aprobeztamendua norberaren ahalbideei egokitzeko B.1.4. Ezagupenak, gaitasunak eta jarrera espezifikoak lortzea, astialdiko jardueretan parte hartzeko
B.2. Adingabe eta gazteek bizi izandako arrisku egoerei behar bezalako erantzunak ematea (komunitatea)	B.2.1. Ingurune/baliabideak edo jadanik dauden hezkuntzako programak arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen ezaugarriei egokitzea, edo egokitutako baliabide edo programak sortzea B.2.2. Baztertze sozial eta desabantailen sentsibilizazioa (komunitatea orokorrean, azpitalde espezifikoak eta baliabide komunitarioak)
B.3. Familiak ikastetxearekin eta komunitatearekin dituen harremanak hobetzea	B.3.1. Familia eta eskolaren arteko harremanak hobetzea B.3.2. Familia eta komunitatearen arteko harremanak hobetzea